



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO UZTAILAREN 12AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Garcia Palacios-ek eta Josune Estella Arranz-ek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2016/06/28KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2016ko ekainaren 28ko bilkurako akta gehiengoz onartu dute. Alaitz Aizpurua bilkura horretan ez zenez egon abstenitu egin da.

2.- LASARTE-ORIA ETA USURBILGO KOLEKTORE NAGUSIAREN ETA ZUBIETAKO SANEAMENDUAREN ARTEKO KONEXIO PROIEKTUA EGIKARITZEKO EGIN BEHAR DIREN OBRAK UDAL BAIMENIK EZ DUTELA BEHAR JAKINARAZTEA AÑARBEO URAK, S.A. SOZIETATE PUBLIKOARI.

Esp. Zenbakia: HZ.10/2015-0523

AÑARBEO URAK, S.A. sozietate publikoak, Zubietako saneamendua kolektore nagusiarekin lotzeko obrak burutzeko udal baimena eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, eskaera eta proiektua aztertu ostean 2016ko otsailaren 29an eman zuen dagokion txostena. Bertan ponpa eraikuntzan ur hartune berria baimendu ahal izateko dagokion eskaerarekin batera ondokoak aurkeztu beharko zirela aipatzen zuen: instalazioaren kokapena, xehetasun planoak eta aurrekontu zehaztua. Era berean, ur hartuneak bete beharko lituztekeen baldintzak aipatzen zituen:

- Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarritzeko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
- Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
- Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
- Itzultze aurkako balbula instalatuko da.



Usurbilgo Udala

- Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da, Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoa eraikiko da.
- Ura hartu baino lehen, instaladoreak prestatu eta Industria sailak onartu eta zigilaturiko “edateko uraren instalazioaren ziurtagiria” aurkeztuko da.
- Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.
- Instalatuko diren hodiak, gaur egun dauden hodian azpitik pasako dira. (Saneamendua, ur sarea, herriko argi sarea, etab.en azpitik hain zuzen.)
- Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
- Hondatzen diren materialak birjarriko dira.

Bestalde, eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andreak, 2016ko uztailaren 6an ondoko txostena eman du:

UA2016_AZP_06

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK
LASARTE-ORIA ETA USURBILGO KOLEKTORE NAGUSIAREN ETA
ZUBIETAKO SANEAMENDUAREN ARTEKO KONEXIO PROIEKTUARI
TXOSTENA

KOKAPENA: Zubieta, Usurbil.

ESKATZAILEA: AÑARBEEKO URAK S.A. Añarbeko Uren Mankomunitatea kudeatzen duen sozietate publikoa.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.10//2015-0523

AURKEZPEN DATA: 2016eko ekainaren 29^a

PROIEKTUAREN PEM: 341.440,79euro.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA AURREKONTUA: 4.350,28euro FIDANTZA (120): 5.220,3EURO

1. AURREKARIAK

- 2015eko abenduaren 16an Enrique Noain Cendoya jaunak, Añarbeko Urak S.A.-ren izenean, obra baimena eskatu du, Lasarte-Oria eta Usurbigo kolektore nagusiaren eta Zubietako saneamenduaren arteko konexio proiektua gauzatzeko.
- 2016ko otsailaren 29an Usurbilgo Udaleko Zerbitzu eta Mantenu Saileko buruaren txostena.
- 2016ko apirilaren 14an udal arkitektoaren txostena honakoa esanaz, interesatuari 2016ko apirilaren 20an jakinarazi zitzaiona:

“Aurkeztu den Proiektua ontzat hartzeko HIRU HILABETEKO epean honakoa aurkeztu beharko da:

- *erredaktatzailearen Teknikari eskudun tituludun gisa aritzeko aitortpena.*
- *URA Ur Agentziaren baimena.*
- *Proposatzen den eraikinaren tipologia ez dator bat indarrean diren AASS-ek lurzoru ez-urbanizagarriko finkatzen dituzten eraikuntza baldintzekin. Beraz, 53. artikuluan zehaztutako tipologia egokitzen den soluzioa aurkeztu beharko da.*



Usurbilgo Udala

- ***Eraikinak bi solairu izanik EKT bete beharko du. Beraz, dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da.***

- 2016ko apirilaren 14an udal arkitektoaren txostena honakoa esanaz:

“(…) ez dago kokapen horretan Sistema Orokorren aurreikuspenik indarren diren AASSTB-ean. Hori dela-eta, txosten juridikoa eskatzen da, sistema orokorra indarrean diren AASS-etan txertatzeko egin beharreko izapidetzea obrak egikaritzeko baimena eman aurrez ala ostean onartu behar den/litekeen argitzeko.”

- 2016ko apirilaren 28an interesatuari proiektua dwg formatuan eskatu zitzaion, Udalak Arau Subsidarioen Aldaketa erredaktatzeko.
- 2016ko ekainaren 21ean Ura ur agentziaren ebazpena, Konfederazioaren baimena emanaz.
- 2016ko ekainaren 29an Añarbeko Urak S.A.-k dokumentazio gehigarria aurkeztu du Udalean.

Erlazionatuak. HZ.12/2015-0505

ZUBIETAKO SANEAMENDUA INTERZEPTORE NAGUSIAREKIN LOTZEKO ETA AIZPURUA HUP (HONDAKIN UREN PONPALEKUA) ERAIKITZEKO OKUPATUTAKO 357,5 M2-KO LURSAILA BEREIZTEKO BAIMENA
2015/1159 Alkatetzaren Dekretua, lursailaren bereizketa baimena emanaz.

2. TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala, 2016ko ekainaren 29an Maider Arregi Intxausti andereak, Añarbeko Urak S.A.-ren izenean, obra baimena eskatu du, Lasarte-Oria eta Usurbilgo kolektore nagusiaren eta Zubietako saneamenduaren arteko konexio proiektuari dokumentazio gehigarria aurkeztuz.

Aurkeztu dokumentazioa da; eskaera orria, teknikari gaituaren aitortpena, URA Agentziaren baimena, eraikuntza AASS.-etara egokitzea barneratzen duen dokumentazioa eta EKT-ren justifikazioa.

Espedeintea eta aurkeztu dokumentazioa aztertuta honakoa esan daiteke:

- **PROIEKTUAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK:** Behean izenpetzen duen teknikariak 2016ko apirilaren 14an emandako txostenean ezarritako baldintzak bete dira, hau da: erredaktatzailearen Teknikari eskudun tituludun gisa aritzeko aitortpena aurkeztu da, URA ur agentziaren baimena jaso da, proiektua AASSTB-ak ezarritako irizpideetara egokitu da eta EKT-ren betetzea justifikatu da. Beraz, zentzu horretan Proiektua ontzat eman daiteke.

- **SISTEMA OROKORRA BAIMENTZEA:** Behean izenpetzen duen teknikariak 2016ko apirilaren 14an emandako txosten gehigarrian orain egikaritu nahi diren obrek Sistema Orokorra osatzen zutela esaten zen eta hala, Sistema Orokor hori indarrena diren AASS-etan barneratu gabe egonik, planeamenduaren aldaketa izapidetzea beharrezkoa ikusten zen. Horrekin batera, baimena eta AASS-en aldaketaren izapitzea galdegiten zen.



Usurbilgo Udala

Gaia aholkularitza juridikoarekin aztertu da eta honakoa ondorioztatu da:

- **1/2001 legegintzako errege dekretuak**, Uren Legearen testu bategina onartzen duenak, **127.artikulu**an horrela dio:

*“1.- Las obras hidráulicas de interés general y las obras y actuaciones hidráulicas de ámbito supramunicipal, incluidas en la planificación hidrológica, y que no agoten su funcionalidad en el término municipal donde se ubiquen, **NO estarán sujetas a licencia** ni a cualquier acto de control preventivo municipal a los que se refiere el párrafo b) del apartado 1 del artículo 84 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.*

*2.- Los órganos urbanísticos competentes no podrán suspender la ejecución de las obras a la que se refiere el párrafo primero del párrafo anterior, siempre que se haya cumplido el trámite de informe previo (del Ministerio de Medio Ambiente), éste debidamente aprobado el proyecto técnico por el órgano competente, las obras se ajusten a dicho proyecto o a sus modificaciones y se haya hecho la comunicación a que se refiere el apartado siguiente.
(...)*

*3.- El ministerio de Medio Ambiente deberá de comunicar a las entidades locales afectadas la aprobación de los proyectos de las obras públicas hidráulicas a que se refiere el apartado 1, a fin de que se inicie, en su caso, el procedimiento de **modificación del planeamiento urbanístico municipal para adaptarlo a la implantación de las nuevas infraestructuras o instalaciones.....”**.*

- Artikulu hau ikusita, egin behar diren obrak interes orokorraren barruan dauden ala ez aztertu da eta ikusi da **10/2001 legeak, uztailaren 5ekoa, Estatuko Plan Hidrologikoari buruzkoak 36.5 artikulu**an honakoa dioela:

“5.- Todas y cada una de las obras incluidas en los anexos II y III se declaran de interés general con los efectos previstos en los artículos 46.2, 127 y 130 del Texto Refundido de la Ley de Aguas,....”

ANEXO II.ean zerrendan agertzen da:

“Colector de saneamiento del Bajo Oria para incorporación al de San Sebastián-Bahía de Pasajes”

- AÑARBEKO URAK S.A.-rekin hitz egin da eta haiek baieztatu dute Usurbilen egin behar diren obrak proiektu honen barruan daudela.

3. ONDORIOAK

Ondorioz esan liteke, AÑARBEKO URAK S.A. sozietate publikoak **LASARTE-ORIA ETA USURBILGO KOLEKTORE NAGUSIAREN ETA ZUBIETAKO SANEAMENDUAREN ARTEKO KONEXIO PROIEKTUA** egikaritzeko egin nahi dituen obrak ez dutela Udal baimenik behar.

Edonola, egikaritu nahi diren obrek indarrean den araudia bete beharko dute ezinbestean eta honenbestez, ontzat hartzen dira eta betetzea eskatzen da indarrean diren Usurbilgo AASSTB-a betetzeko proiektuari egin zaizkion egokitzapenak.

Azkenik, Udalarik ohartarazten zaio Sistema Orokor hau AASSTB-ean barneratzeko Arauen Aldaketa puntuala lehenbailehen izapidetu beharraz.



Usurbilgo Udala

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2016eko uztailaren 6an

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOAREN BAIMENA

URA ur agentziak, 2016ko ekainaren 21ean helarazi du Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariak 2016ko ekainaren 9an emandako ebazpenaren kopia. Bertan AÑARBEKO URAK, S.A. sozietate publikoari, Usurbil eta Donostiako (Gipuzkoa) udalerrietan, Oria ibaiaren ezker ertzeko uren polizi gunean, Zubieta auzoko ur zikinen hoi biltzailea eraiki eta lehendik dauden saneamendu azpiegiturak hodi biltzaile orokor berria lotzeko lanak baimentzen zaizkio.

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: LASARTE-ORIA ETA USURBILGO KOLEKTORE NAGUSIAREN ETA ZUBIETAKO SANEAMENDUAREN ARTEKO KONEXIO PROIEKTUA egikaritzeko egin behar diren obrak Udal baimenik ez dutela behar jakinaraztea AÑARBEKO URAK, S.A. sozietate publikoari.

Edonola AÑARBEKO URAK, S.A. sozietate publikoari ondokoaz ohartaraztea: egikaritu nahi diren obrek indarrean den araudia bete beharko dute ezinbestean eta honenbestez, ontzat hartzen dira eta betetzea eskatzen da indarrean diren Usurbilgo AASSTB-a betetzeko proiektuari egin zaizkion egokitzapenak. Era berean, udal aparejadoreak aipatutako baldintzak ere bete beharko dira.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea.

3.- LASER KEN, S.A. ENPRESARI, ATALLU INDUSTRIALDEKO ARMAIDA KALEA 2KO PABILOIARI DAGOKION URBANIZAZIO OSAGARRIA EGITEKO UDAL BAIMENA EMATEA.

ESP. ZENBAKIA: HZ.04/2015-0521

LASER KEN, S.A. enpresak egindako eskaera aztertu dut. Bertan, Atallu industrialdeko Armaida kalea 2ko pabiloiari dagokion urbanizazio osagarria egiteko udal baimena eskatzen du.

OBRAREN EZAUGARRIAK



Usurbilgo Udala

Exekuzio materialeko aurrekontua:	87.381,00 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabera hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.044,79 € Fidantza (%120): 1.253,75 €.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andreak, 2016ko ekainaren 22an ALDEKO ondoko txostena eman du:

UA2016_04_28

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate jaunari
OBRA HAUNDIAK

ATALLU KALEA 18KO PABILOIARI URBANIZAZIO OSAGARRIA EGITEKO PROIEKTUARI TXOSTENA

ESKATZAILEA: LASER KEN, S.A.

KOKAPENA: Armaida kalea, Atallu Industrialdea, Usurbil.

ESKAERA DATA: 2015ko abenduaren 15.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.04/2015-0521

URBANIZAZIO OSAGARRI PROIEKTUAREN PEM: 87.381,0EURO.

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.044,79euro FIDANTZA (%120): 1.253,75EURO.

AURREKARIAK

- 2015ko abenduaren 15ean LASER KEN S.A. enpresaren izenean eskaera egin da Usurbilgo Udalean, Atallu kalea 18an dagoen pabiloiari urbanizazio osagarria egiteko.
- 2016ko ekainaren 7an udal aparejadoreak Zerbitzuetako txostena eman du.
- 2016ko ekainaren 13an udaltzaingoak txostena eman du.

Erlazionatuak:

HZ.04/2006-0225 : Atallu kalea 18ko Pabiloiaren egikaritze baimena.

- Alkatearen 2006/1249 zenbakidun dekretua baimena emanaz: 2006-11-17

TXOSTENA

LASER KEN S.A. enpresaren izenean Usurbilgo Atallu 18ko pabiloiari urbanizazio osagarria egiteko eskaera egin da Udalean, horretarako dagokion Proiektua aurkeztearekin batera. Aurkeztu dokumentazioa da: eskaera orria eta Urbanizazio Osagarri proiektua, arkitekto teknikoak izenpetua eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia (COAATG 2015/12/14). Urbanizazio Osagarriaren Proiektuak barneratzen ditu; memoria, planuak, aurrekontua, baldintza plegua, hondakinen kudeaketa azterlana, Osasun eta Segurtasun Oinarrizko azterlana eta Kalitatearen Kontrolerako Plana.



Usurbilgo Udala

Aurkeztu proiektuan esaten denez:

“La entidad promotora LASER KEN S.A., estaría interesada en al modificación d elo especificado en el PROYECTO DE EJECUCIÓN DE CONSTRUCCIÓN DE TALLER DE CORTE DE CHAPA PARA LASER KEN S.A., en lo concerniente a la urbanización complementaria para acceso rodado a la nave por su fachada Suroeste, desde la calle Armaida. (...)”

“(...) las obras que se definen en este Proyecto de Urbanización, tendrían como finalidad la elevación de las cotas actuales de la calzada, para conseguir acceder con la mínima pendiente al pabellón industrial LASER KEN S.A., sin interferir en los accesos al resto de pabellones de l misma calle, ni modificar las instalaciones existentes.”

“La actuación comprende una superficie de 1557 m2, de los cuales 557 m2 son de aceras y 1000 m2 de carretera, incluidos badenes de recogidas de aguas”.

Eskaera eta Proiektua aurkeztuta, honakoa esan daiteke:

- **URBANIZAZIO OSAGARRIA:** Aurkeztu den Urbanizazio proiektua LASER KEN S.A. enpresak Atallu 18 kalean duen pabiloiaren obra osagarri bezala eskatu du interesatuak. Urbanizazio obra osagarrien inguruan, honakoa finkatzen du 2/2006 Legearen 195. artikulua:

*“1.Jarduketa isolatueterako aurkeztu behrako diren urbanizatzeko-obra osagarrien proiektuetan, lizentzian baimendutako **eraikuntza-obra**ren orotariko aurrekontuaren %5eko edo gutxiagoko kostua duten urbanizatzeko- edo konpontze-lanak bakarrik sar daitezke. Udal-ordenantzetan ezarritako prozeduraren bitartez onartuko ditu udalak proiektu horiek (...), edo bestela, eraikuntza-proiektuaren eranskin gisa jasoko dira proiektuok, eta dagokion lizentziaren bitartez baimenduko dira.”*

Aurrekarietan aipatu bezala, 2006ko azaroa Usurbilgo Udalak obra baimena eman zuen Atallu 18 kalean pabiloi industrialera eraikitzeko. Obra haren PEM 2.680.153,95 euroakoa izanik.

ATALLU KALEA 18KO PABILOIAREN OBRA AMAIERAKO PEM	ATALLU KALEA 18KO PABILOIAREN OBRA AMAIERAKO PEM-AREN %5	URBANIZAZIO OSAGARRI PROIEKTUAREN PEM	2/2006 LEGEAREN 195.1. ARTIKULUA
2.680.153,95€	134.007,69€	87.381,0€	134.007,69€ >87.381,0€ BETETZEN DU

Beraz, **esan liteke, 2/2006 Legea betetzen duen heinean Urbanizazio Osagarria dela eta beraz, Udal Ordenantzarik ezearan, eraikuntza-proiektuaren eranskin gisa baimenduko dela, hari dagokion administrazio prozedura jarraituz.**

- **HIRIGINTZA PARAMETROEN BETETZEA:** Aplikagarriak zaizkio indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bategina eta zehazki A-104 ATALLU eremurako hirigintza fitxan ezarritakoak. Arau Subsidiarioekin batera, aplikagarriak zaizkio Atallu Industrialdeko Plan Partzialean finkatzen direnak eta horren harira, ohartarazi behar da 2011ko irailaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Atallu Industrialaren Plan Partzialaren 2. aldaketak honakoa ezartzen zuela eraikinaren kanpo aparkalekuen inguruan:

“17. artikulua. Ibilgailuen sarbidea eta barruko aparkatzea.

(...)



Usurbilgo Udala

3. Azaleko aparkamendu plazen kopurua errespetatze aldera; eta bide publikoan aurreikusitako plazak kontutan izanik; partzela pribatueterako sarbideengatik edota beste arrazoi batzuegatik, aparkamenduko plaza publikoak desagertzen diren kasuan, hauek partzela horietan ordezkatu beharko dira.”

Beraz, **urbanizazioaren egokitzapen hau besteren artean eraikinen sarbideak egokitzeko helburuarekin egiten denez, edonola Plan Partzialaren 2. aldaketak ezarritakoa bete beharko dela ohartarazten da.**

- **URAREN EUSKAL AGENTZIAREN BAIMENA:** Indarrean den AASSTB-ko fitxak honakoa ezartzen du A-104 ATALLU eremurako: *“Lur esparru honetan burutuko den edozein eskuhartzetan Administrazio Hidraulikoaren baimena beharko da (...).”* Uraren Euskal Agentziako Iñigo Auza teknikariarekin hitzegina da eta obra honek URA agentziaren baimena behar duen galdetu da. Aipatu teknikariak erantzun du ez duela argi ikusten baimenik behar duen ala ez, edonola urbanizazioaren sestra igotzeak inguruko eremuari eragin diezaiokeela bere ustez. Hori dela-eta, nahiz eta polizi gune ez dagoen, uholdegarritasun arriskua duen kokalekuan egonagatik, beharrezkoa da beraien txostena, dio Iñigo Auzak, eta hori gabe (non baimena behar den ala ez, baldintzarik bete behar den ala ez argitu eta zehazten den) Udalak ezin duela baimenik eman.
Beraz, ezinbestean egin beharko da aipatu tramitea.
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANAREN AURREKONTUA ETA FIDANTZA:** Aurrekontuan Hondakinen Kudeaketa partida finkatu da **1.044,79€**koa. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, **aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.253,75€).** Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- **LUR KUTSATUAK 1/2005 LEGEA:** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko, ezarritakoa bete beharri dagokionez zera adierazten da; IHOBE S.A. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak egindako EAeko lurzoruaren polutzaile izan daitezkeen jarduerak dituzten lurzoruen inbentarioan, LASER KEN S.A. enpresak Atallu 18ko pabiloiari egin nahi dion Urbanizazio Osagarria ez dela lur kutsatuak edota izan daitezkeen arriskuarekin inbentariatua dagoen lurzoruan kokatzen. Beraz ez dago eragozpenik.
- **INGURUKO PABILOIEI ERAGINA:** Proiektuan esaten denez; *“para poder librar con el desnivel creado, las rejillas de ventilación existentes en la fachada de al anve de ADABA, se propone la realiación de un murete a dos metros de distancia en el que se apoye una rampa peatonal por el lado de la zona de aparcamiento”.*

Honen inguruan, ohartarazi beharra dago, 2/2006 Legeak 211.2. artikuluan finkatzen duena:

“Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira.”



Usurbilgo Udala

Edonola, behean izenpetzen duen teknikariak gomendatzen du obrak egikaritu aurretik aipatu soluzioa hirugarrenekin adostea.

- LEHEN ERABILERA BAIMENA ETA URBANIZAZIO OSAGARRIA: Legeak ezarritakoari jarraituz, lehen erabilera baimena emateko ezinbestean urbanizazio osagarriak amaituta eta ontzat hartuta egon beharko du eta haren obra amaiera eraikuntzaren obra amaierari atxikiko zaio.
- BESTEAK: Udaltzaingoaren eta Zerbitzutako buruaren txostenera bideratzen dira.
- OBRA BAIMENA ETA OBRA BAIMENAREN EPEAK: Baimenaren epeak izango dira:
 - **Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete**
 - **Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 6 hilabete.**
 - **Obrak amaitzeko gehiengo epea: 1 urte.**

ONDORIOAK

LASER KEN S.A. enpresaren izenean Usurbilgo Atallu 18ko pabiloiari urbanizazio osagarria egiteko eskaera egin da Udalean, horretarako dagokion Proiektua aurkeztearekin batera. Aurkeztu dokumentazioa da: eskaera orria eta Urbanizazio Osagarri proiektua, arkitekto teknikoak izenpetua eta dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia (COAATG 2015/12/14). Urbanizazio Osagarriaren Proiektuak barneratzen ditu; memoria, planuak, aurrekontua, baldintza plegua, hondakinen kudeaketa azterlana, Osasun eta Segurtasun Oinarrizko azterlana eta Kalitatearen Kontrolerako Plana.

Ondorioz, aurkeztu den Atallu kalea 18ko pabiloiari urbanizazio osagarria egiteko proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, aipatu baldintzapean.

Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta, obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnitazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Usurbilen, 2016eko ekainaren 22an.

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Ekhiñe Egiguren Azkune

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallus jaunak, 2016ko ekainaren 7an ondoko txostena eman du:

ESKAERA: Laser Ken Saren, "Proyecto de Urbanización complementaria" proiektuko, zerbitzuak eta mantenua sailari dagozkion zerbitzuen txostena
ESKATZAILEA: Hirigintza saila




Usurbilgo Udala

KOKAPENA: Armaida kalea (Atallu industrialdea)
ESP. ZENB: HZ.04/2015-0521

TXOSTENA

Laser Ken enpresak aurkeztutako "Proyecto de urbanización complementaria"-ren udal zerbitzuetako azpiegiturari buruzko zerbitzu eta mantenua saileko txostena eskatu du, Usurbilgo Udaleko Hirigintza sailak

Aurkeztutako proiektuan jasotzen dira, herriko argiak, saneamendua eta ur edangarriaren sareetan proiektuak izango duen eragina. Saneamenduko kutxeta tapak, ur edangarriaren erregistroak eta herriko argien farolak, kale berriaren altuetara egokitzen dira. Ureztatze ahoa oso baxua geratzen denez, kale berriaren kotara igoko da.

HERRIKO ARGIAK	Aurkeztutakoa ontzat ematen da.
	Kotaz igotzen diren herriko argien albona erregistro kutxak eraikiko dira Kutxeta tapen testua: herriko argiak – Usurbilgo Udala
UR SAREA	Ureztatze-ahoa berria jarriko da, Usurbilgo Udalak erabiltzen duen eredua eta kota egokian. Tapen testua: Ur-hartuenea – Usurbilgo Udala
	
SANEAMENDUA	Aurkeztutakoa ontzat ematen da.

Usurbilen, 2016eko ekainaren 7an

Zerbitzu eta Mantenua saileko burua
Felix Aizpurua Arzallus

URA ur agentziak, 2016ko uztailaren 5ean helarazi du bere txostena. Honela dio hitzez hitz:

Erref.: CO-G-2016-0049

GAIA: ORIA IBAIAREN ESKUIN ALBOAN, USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIKO ATALLU POLIGONOKO ARMAIDA KALEAN, INDUSTRI NABE BATEN INGURUKO HIRITARTZE OSAGARRIAREN EGITASMOA



Usurbilgo Udala

2016/06/24ko dataekin izan du sarrera Uraren Euskal Agentziaren ekialdeko kantauriar arroen (Gipuzkoa) Bulego honetan, Juan Amaro Rodríguez jaunaren baimen eskaerak erreferentziako obrak egiteko. Sustatzailea, txapak mozten jarduten duen LASER KEN, S.L. enpresa da.

Eskaera, memoria eta planoak dituen dokumentuaz laguntzen da, eta egitasmoaren helburua, pabiloi artean dagoen Aramaida kaletik pabiloira bere hego-mendebaldetik, ibilgailuen irisgarritasuna hobetzea da, gaur dauden % 12 eta %14 arteko maldak laburtuz. Puntu hurbilenean kalearen kokapena (UTM ETRS89 koordenadak: X=577242; Y=4790830) 130 m. aldentzen da ibaitik, 100 m. zabal den zaintza gunetik kanpo kokatuaz, eta beraz, **obra hau baimentzea ez da Arro Erakundearen eskuduntza.**

Kalea, 100 urtetik behingo uholdeek urperatzen dute, naiz eta lehentasunezko fluxu eremutik kanpo gelditu, eta bere altxatze lanak nahiko txikiak dira, gehienez 0,8 m garaieran eta 40 m. luzeran eta, ondorioz, ez du eraginik izango inguruetakako urperagarritasunean, kontuan izanda oso zabala dela pabiloi eta Oria ibaiaren artean gelditzen den lur eremu inundagarria.

Eremu horretako uholdagarritasunaren analisiak erakusten du erreferentziako gunean 500 urteko itzulera epea duten Oria ibaiaren gehienezko uholde bolada 13,85 m.s.n.m.-eko kotara -REDNAP2008-heltzen dela, ARPSI ES018-GIP-16-Oria Behea, Uholdagarritasun Arrisku Potentzial Esanguratsudun Eremuaren barne aurkituaz.

Guzti hau dela eta, Bulego honetatik oneritzia ematen zaie kalearen zorua haltzatzeko lanei, kontuan izanda eskatzaileak beregain hartu behar duela inundagarritasun arriskua, aurretiazko neurri zuzentzaile eta babesgarriak hartuaz.

Donostian, 2016ko uztailaren 29an

Gauzak horrela, txosten teknikoak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: LASER KEN, S.A. enpresari, Atallu industrialdeko Aramaida kalea 2ko pabiloiari dagokion urbanizazio osagarria egiteko udal baimena udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik. 15 eguneko epean:**
 - Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 226,61 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.253,75 euro). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena



Usurbilgo Udala

aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.253,75 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2015-0521*” jarriaz kontzeptuan.

- Urbanizazioaren egokitzapen hau besteren artean eraikinaren sarbideak egokitzeko helburuarekin egiten denez, edonola Plan Partzialaren 2. aldaketak ezarritakoa bete beharko dira.
- Irisgarritasun araudia (68/2000 Dekretua), EKT, Suteen Aurkako babesa eta gainontzeko araudi aplikagarriak beteko dira obren egikaritzan.
- Jakinarazten da obra lanak egiteko baimenak ez duela Administrazioa lotesten eta obra lanen exekuzioaren ondorioz, sor edo sortaraz litezkeen kalte eta galerak ez direla izango indemnizazio gai, egindako obra lanak eraldatzeko betebeharrak jardueraren inguruko neurri zuzentzaileak ezarriko balira.
- Enrique Erro Garcia arkitekto teknikoak 2015eko abenduan idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal teknikariek bere txostenetan ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Zerbitzu eta azpiegiturei dagokionez, udal aparejadoreak bere txostenean ezarritako baldintzak beteko dira.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldarmioak edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehieneko epea: urte 1.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - a) Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - b) Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.



Usurbilgo Udala

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

- c) Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoaz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

- d) Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 cm. takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.

- e) Obralanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberrako segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

4.- GARBIÑE ASTIAZARAN OLASAGASTI ANDREAK ESKATU BEZALA, ERABERRITUTAKO ARRATZAINBERRI BASERRIARI ETA BERTAN MOLDATUTAKO BI ETXEBIZITZEI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2005-0475

GARBIÑE ASTIAZARAN OLASAGASTI andreak eraberritutako Arratzainberri baserriaren lehen erabilera baimena eskatu du.

AURREKARIAK

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2006ko otsailaren 14ean egindako bilkuran, besteak beste, zera erabaki zuen: GARBIÑE ASTIAZARAN OLASAGASTI andeari Arratzainberri baserria, barruan bigarren etxebizitza antolatuz eraberritzeko udal baimena ematea.



Usurbilgo Udala

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2009ko apirilaren 28an berriz, obrak bukatzeko epea urtebetez luzatzea onartu zuen.

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako dokumentazio aurkeztearekin batera eraberritutako baserriaren lehen erabilera baimena eskatu da.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagozkion ikuskapen bisitaldia egin ostean, 2016ko uztailaren 5ean ALDEKO txostena eman du.

Guzti hau kontutan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: GARBIÑE ASTIAZARAN OLASAGASTI andereak eskatu bezala, eraberritutako Arrantzainberri baserriari (*Sakabanatuak 3. sekzioa 23*) eta bertan moldatutako bi etxebizitzei (*Sakabanatuak 3. sekzioa 23, eskuina* eta *Sakabanatuak 3. sekzioa 23, ezkerre*) lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

5.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2013KO UZTAILAREN 16AN URBANIZAZIO PROIEKTUA HASIERAZ ONARTUZ HARTUTAKO ERABAKIA BERTAN BEHERA UZTEA ETA A-59 (UGARTONDO) EREMUARI DAGOKION URBANIZAZIO PROIEKTUA (2015 OTSAILA) HASIERAZ ONARTZEA.

Puntu hau mahai gainean uztea erabakia da.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:00etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.